

organizado por



antolatua

CLUB DEPORTIVO KEMEN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD
KEMEN PERTSONA EZINDUEN KIROL KLUBA

X. ARGAZKI LEHIAKETA DIGITALA

estilo libre



estilo libre

X. CONCURSO FOTOGRAFICO DIGITAL

GAIA / TEMA

PERTSONA EZINDUAK KIROLEAN
PERSONAS CON DISCAPACIDAD EN EL DEPORTE

1 ANTOLATZAILEA

KEMEN Pertsona Ezinduen Kirol Kluba Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen laguntzaz.

2 GAIA

Pertsona ezinduak kirolean.

3 NORK PARTE HAR DEZAKE

Adindun eta edozein herrialdetako argazkilari afizionatu edo profesionalek.

4 ARGAZKIEN FORMATUA

- a) Parte hartzaile bakoitzak 3 argazki bidal ditzake, serie bat osatuz ala ez.
- b) Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar dira, alde txikiak gutxienez 200 pxeletako tamaina eta gutxienezko erresoluzioak 250 ppp izan behar du.
- c) Irudien formatua JPG.
- d) Aurkeztutako irudiak kolorez edo txuri beltzez izan daitezke.
- e) Irudia ezingo da digitalki manipulatu, salbuespenak: argitasuna, kolorea, kontrastea...
- f) Aurkeztutako lanak originalak eta inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Beste edozein lehiaketetan saritu eta KEMENek urtero antolatzen duen argazki lehiaketan aurkeztu gabeak.

5 NOLA AURKEZTU

Argazkiak 2019ko azaroak 30a arte aurkeztu ahal izango dira. Irudiak concurso@kemen.org helbidera bidali, JPG formatuan, bakoitza bere izenburu eta zenbakiekin. Beste aldetik parte hartzailearen izen abizenak, helbidea, herrialdea, lurraldea, posta kodea eta helbide elektronikoa azalduko dira.

6 EPAI MAHAIA

Epai Mahaia Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko ordezkariak osatuko dute. Beraiek arduratuko dira argazki sarituak eta finalistak zeintzuk izango diren aukeratzeko.

7 SARIAK

1go Saria: 200 € eta garaikurra. **2. Saria:** 150 € eta garaikurra. **3. Saria:** 100 € eta garaikurra. Parte hartzaileek sari bakarra irabaz dezakete.

8 EPAI MAHAIAREN ERABAKIA eta SARI BANAKETA

Epaia mahaiaren erabakia eta sari banaketa behar denean jakitera emango da. KEMEN arduratuko da sarituei honen guztiaren berri emateaz.

9 ARGAZKI ERAKUSKETA

Aurkeztutako irudiekin herri ezberdinetan argazki erakusketa ibiltari bat egingo da.

10 EGILE ESKUBIDEAK

Aurkeztutako lan guztien jabetza eta eskubidea egilearena izango da. KEMENi baimena ematen dio beraien banaketa eta erabilpena egiteko, argazki lehiaketaren berri emateko eta aldi berean kirol elkarteko proiektuen berri eta kirol egokitua hedatzeko.

KEMENek antolatzen duen argazki lehiaketa honetan parte hartzen duenak egile eskubide eta argazkietan azaltzen diren pertsonen norbanako irudien eskubideak onartzen ditu.

11 DATU BABESTEIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko DBEO Europako Erreklamendu Berriari (UE 2016/679) jarraituz, parte hartzaileen datu pertsonalak KEMENek sortutako fitxategi batean geratuko dira. Bertan azalduko diren datuak eta bere tartakerak bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik argazki lehiaketa egiten laguntzea eta irabazle eta finalistekin harremanetan jartzeko aukera eskeintzea.

Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo datuak ezerezteko prozedura bideratzeko idatziz zuzendu honako helbidera:

KEMEN Argazki Lehiaketa
Mons Pasealekua 100
20015 Donostia-San Sebastián

12 OINARRIEN ALDAKETA eta INTERPRETAZIOA

Edozein gorabeheren aurrean KEMENek aukera izango du oinarriak aldatzeko edo interpretatzeko. Erabaki edo aldaketa horien berri noiz eta nola eman KEMENen esku geratuko da.

13 OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.



www.kemen.org

Paseo de Mons 100, Bajo • 20015 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN • T/F 943 270 251 • kemen@kemen.org

ORGANIZA:



CLUB DEPORTIVO KEMEN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD
KEMEN PERTSONA EZINDUEN KIROL KLUBA

COLABORAN:



GIPUZKOAKO ARGAZKILARI ELKARTEA
SOCIEDAD FOTOGRAFICA DE GIPUZKOA



AZPETIKO ARGAZKI ELKARTEA



EL DIARIO VASCO